



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2014KO IRAILAREN 4KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2014.09.04.
Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Ander Almandoz Indacoechea jn.
Zinegotziak:
Koldobike Gorostiza Uriguen and.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Mikel Leiza Etxeberria jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Cristina Altzuri Bergara andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Juan Carlos Alonso Barrio jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Kontseilua: diru laguntza eskaera.
- 5.-Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa: diru laguntza eskaera.
- 6.-Cornelio Ubiria Leiza jauna: trukaketa eskaera.
- 7.-Larretako bidearen mugaketa.
- 8.-Alkatearen ebazpenak.
- 9.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2014ko abuztuaren 11n egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-CRISTINA ALTZURI BERGARA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Cristina Altzuri Bergara andreak, bere osaba Cruz M^a Vergara Machicote jauna zenaren izenean dagoen lur zatian, Bulatxiki alderdian, pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 5. poligonoko 103. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Cristina Altzuri Bergara andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-JUAN CARLOS ALONSO BARRIO JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Juan Carlos Alonso Barrio jaunak Andreseneko Borda alderdian pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 5. poligonoko 932. lur zatian).

Ikusirik Arantzako Udalak irazlaien hitzarmena sinatzeko onartutako oinarrien 9. artikulua eta horren arabera partikularrak egindako landaketa berak probetxuko duela baino Udalari Mendiko Zerbitzuak eginen duen balorazioaren %10a ordaintzeko baldintza pean.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan Carlos Alonso Barrio jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea eta mendizainari probetxamenduaren balorazio egiteko eskatzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4.-KONTSEILUA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Gaia mahai gainean uzten da gehiago aztertzeko.

5.-NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak igorritako idatzia, diru laguntza eskatuz Nafarroako Elikagaien Bankuarentzat.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta Bortzirietako bertze Udaleekin afera aztertzea laguntza zehazteko.

6.-CORNELIO UBIRIA LEIZA JAUNA: TRUKAKETA ESKAERA.

Ikusirik Cornelio Ubiria Leiza jaunak aurkeztutako eskaera 6. poligonoko 336. lur zatiaren azalera 1. poligonoko 290. lur zatiarekin trukatzeko, horrela 1. poligonoko 89. lur zatian duen borda ingurua lurra partikularra lortzeko.

Ikusirik eskaeran ez dela zehaztu trukaketaren zergatia eta helburua eta ondoren eman nahi den erabilera.

Kontuan hartuz Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Nafarroako entitate lokalen Ondasun Arautegia onesten duen 280/1990 Foru Dekretuaren arabera, entitateak alde aurretik frogatu behar duela salmenta edo trukaketa kargaren edo erabilpenaren lagapenaren bidez lortzerik ez dagoela.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Cornelio Ubiria Leiza jaunari trukaketaren zergatia, helburua eta eman behar den erabilera zehaztea eskatzea.

7.-LARRETAKO BIDEAREN MUGAKETA.

Ikusirik Larretako alderdiko bidearen mugaketa egiteko beharra (5. poligonoko 560, 561,562,564,565,567,605,604,603,602 eta 729 lur zatien artekoa), nahiz katastroko planoetan agertu bertan ez delakoz ongi ezagutzen eta hori berreskuratzeko herri ondasuna bezala.

Ikusirik udaleko idazkariaren txostena.

Ikusirik Carlos Loizu Loizu teknikoaren 2014ko abuztuaren 25eko txostena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 114. artikulua eta ondorengo arabera.

Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erreglamenduaren 47. artikulua eta ondorengo arabera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako bidearen mugaketaren espedienteari hasiera emateko onartzea.

2) Adierazitako txostena eta gastoa onartzea.

3) Akordio honen berri bideak ukitzen dion jabe guztiei eta finka horien gainean errotutako eskubide errealeen titularrei berri ematea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki oholean iragarkia argitaratzea eta ondorengo 40 egunetan interesatuek beren eskubideak defendatzeko egoki deritzen dokumentu guztiak aurkezteko epea irekitzea. Epe hori iraganik, ez da agiri edo alegaziorik onartuko.

4) Erabaki hau eta mugaketa egiteko eguna eta tokia Udalaren iragarki oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5) Arantzako Udaleko Alkatea eta Udaleko idazkaria, Udalaren ordezkari izendatzea, neurketa egunerako.

6) Erabaki hau Jabetzaren Erregistroari jakinaraztea, oharra idatz dezan. Halaber, erabaki honen berri emanen zaie Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazioiko Departamentuari eta Herrilurren Atalari.

7) Erabaki honen aurka, mugaketa espedientea hasteko tramite hutsa denez, ez dago errekurtsorik jartzetik, ezertan ukatu gabe interesdunek eskubidea dutela bidezko iruditzen zaizkien alegazioak eta agiriak aurkezteko, erabaki honen 3. atalean zehaztutakoari jarraikiz.

8.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2014ko 56. ebazpenetik 59. arte).

9.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira izan.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

10.-DAVID VERTIZ HAZEN JAUNA: EPEA LUZATZEKO ESKAERA.

Arantzako Udalak 15 eguneko epea eman zion David Vertiz Hazen jaunari Otxuneko Bordan baimenik gabe egindako obrei buruz dokumentazioa aurkezteko.

Ikusirik David Vertiz Hazen jaunak aurkeztutako eskaera, 3 hilabeteko luzapena emateko eskatuz .

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) David Vertiz Hazen jaunari 2014ko azaroaren 18a arte luzapena ematea dokumentazioa aurkezteko.

Ander Almandoz Indacoechea jauna eta Koldobike Gorostiza Uriguen andrea ateri dira bilera aretotik.

11.-LANGABETUAK KONTRATATZEKO DEIALDIA.

Arantzako Udalak langabetuak kontratatzeke (peoia bat) diru laguntza lortu zuen. Diru laguntza urriaren 31a arte da.

Ikusirik hartutako langileak utzi duela lana.

Ikusirik lan eskaintza egin eta diru laguntza lortzeko baldintza betetzen duten zerrenda.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Langabezian denbora gehien duen pertsona kontratatzea urriaren 31 arte.

Bertzerik gabe, gaueko 20:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Ander Almandoz Indacoechea jn.

